

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZESTOAKO UDALA

Iraeta auzoan, Zestoako Baratze Parkeko herri baratzeak erabiltzeko lizentzien emakida arautzen duten baldintzen orria.

1. Deialdiaren helburua.

Zestoako Udalak 2013. urtean Zestoako Baratze Ekologikoen esleipen eta kudeaketarako araudia argitaratu zuen (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, 92. zk, 2013ko maiatzaren 16a). Aisialdirako ortuak sortzeko lurra prestatu zituen eta deialdi bat egin zuen programa horretan parte hartzeko. Epea amaitzean dagoe la ikusita, deialdi berri hau argitaratu du Zestoako Udalak.

Deialdi honen helburua da Zestoako Baratze Parkeko 40 herri baratzeak erabiltzeko lizentziak emateko baldintzak ezartzea.

Baratzeen eta haien instalazioen ezaugarriak Zestoako Baratze Parkea proiektuan jasotakoak dira.

Parkeak 60 m²-ko 40 baratze izango ditu, eta gainerako azalera herri erabilerakoa izango da (lanabesen eraikina, bideak, ureztatzeko putzuak, konpost gunek, etab.).

2. Erabilera erregimena eta prezioa.

Baratzeak erabiltzeko lizentziak prekarioan emango dira, urtebeterako. Epea luzatu ahal izango da, gehienez 4 urtera arte.

Baratzeak 1etik 40ra zenbakituta egongo dira.

Erabiltzeko erregimena eta baldintzak izango dira lizentziak eta baratze ekologikoak esleitzeko eta kudeatzeko arautegian ezarritakoak (arautegia 2013ko maiatzaren 16an argitaratu zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN).

Erabiltzaile bakoitzak 20 €-ko fidantza ordaindu beharko du, eta urtean 50 € baratzea erabiltzeagatik eta ur kontsumoagatik.

Fidantza itzuli egingo da onuradunak baratzearen lagapen aldia agortzen duenean.

3. Onuradun izateko baldintzak.

Aisialdirako baratze ekologikoen erabilera lizentzien onuradunak izan ahal dira Zestoako udalerrian erroldatuak. Ezinbestekoa izango da esleipenerako deialdia argitaratu orduko gutxienez sei hilabete erroldatua izatea.

Horrez gain, honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Aisialdirako baratze ekologikoan garatuko diren nekazaritza eta laborantza jarduerak egiteko fisikoki gai izatea.

Adingabeen eskabideek guraso edo tutoreen abala izan beharko dute, eta adin nagusikoak izango du erantzukizuna, araudi honen arabera.

b) Zestoako Udalarekiko zerga-betebehar eta gainerakoak ordainduta izatea.

c) Beste baratze ekologiko bateko erabiltzailea den familia-unitate bateko kide ez izatea.

d) Ez izatea beste landa-lur baten jabe, ez edukitzea beste landa-lur baten gozamen eskubiderik, ezta maizterra izatea ere, ez erabiltzailea bera, ezta familia unitateko kidea ere. Beti ere nekazaritza-jarduerarako egokiak badira.

AYUNTAMIENTO DE ZESTOA

Convocatoria para la adjudicación de licencias de las huertas populares de Zestoako Baratze Parkea en el barrio Iraeta.

1. Objetivo de la convocatoria.

El Ayuntamiento de Zestoa publicó en 2013 el Reglamento de adjudicación y gestión de las huertas ecológicas de Zestoa (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 92, de 16 de mayo de 2013). Habilitó terrenos para la creación de huertas de ocio y publicó una convocatoria para participar en este programa. Visto que su plazo está a punto de finalizar, el Ayuntamiento de Zestoa ha publicado esta nueva convocatoria.

El objeto de la presente convocatoria es establecer las condiciones para la concesión de licencias de uso de los 40 huertos urbanos del Parque Baratze de Zestoa.

Las características de las huertas y sus instalaciones son las recogidas en el proyecto Zestoako Baratze Parkea.

El parque tendrá 40 huertas de 60 m² y la superficie restante será para uso comunitario (edificio de herramientas, caminos, pozos de riego, puntos de compostaje, etc).

2. Régimen de uso y precio.

El título de la licencia concedida será por un año «a precario». El plazo podrá ampliarse hasta un máximo de 4 años.

Las huertas estarán numeradas de 1 a 40.

El régimen y las condiciones de uso serán las establecidas en la normativa para la adjudicación y gestión de licencias y huertas ecológicas (publicada el 16 de mayo de 2013 en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa).

Cada usuario deberá abonar una fianza de 20 €, y un canon de 50 € anuales por el uso de la huerta y el consumo de agua.

La fianza será reembolsada cuando se agote el plazo de cesión de la huerta.

3. Requisitos para ser beneficiario.

1. Podrán ser beneficiarios de las licencias de ocupación de los huertos ecológicos de ocio, las personas empadronadas en Zestoa desde al menos seis meses antes de la publicación del anuncio de la convocatoria para la adjudicación.

Además, deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Encontrarse capacitado físicamente para la realización de las labores agrícolas y de cultivo a desarrollar en el huerto ecológico de ocio.

Las solicitudes de las personas menores de edad deberán venir avaladas por el padre, madre o tutor, siendo la persona adulta la responsable a efectos de éste Reglamento.

b) Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias o de otra índole con el Ayuntamiento de Zestoa.

c) No ser miembro de una unidad familiar usuaria de otro huerto ecológico.

d) No tener en propiedad, ni en usufructo o arrendamiento, en cualquier lugar, ni el solicitante ni ningún miembro de la unidad familiar terrenos de naturaleza rústica, que sean aptos para actividades agrícolas.

e) Zestoako Baratze Ekologikoen esleipen eta kudeaketa-rako araudia ez betetzeagatik zehapenik ez jaso izana.

4. *Eskaera eredia.*

Eskaera eredia I. eranskina da.

5. *Eskaerak aurkezteko lekua eta epea.*

Eskaera-inprimakiak, behar bezala beteta, udaletxeko bule-goetan erregistratu beharko dira, aurrez aurre edo elektronikoki, hamar egun naturaleko epean, deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Epe hori luzatu egin ahal izango da, Zestoako alkateak hala erabakiz gero.

6. *Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

Onartua izateko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, eskaerarekin batera honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

a) NAREN edo legez ordezkoa den dokumentuaren fotokopia.

b) 3. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentuak edota zinpeko adierazpena (II. eranskina).

c) Langabetuaren egoera egiaztatzen duen dokumentua, hala izanez gero.

Udalak ofizios egiaztatuko du erroldatuta daraman denbora, arau-hausterik ez duen egin, eta udalarekiko zerga betebeharrak eta bestelakoak eguneratuta dituen.

Udalak eskatu ahal izango dio eskatzaileari ezarritako baldintzak justifikatzeko egoki irizitako dokumentazio osagarria.

7. *Behin-behineko zerrenda eta erreklamazioak.*

Zestoako Udalak, eskaeretan jasotako datuak egiaztatu ondoren, baldintzak betetzen dituzten eskatzaileen behin-behineko zerrenda egingo du.

Behin-behineko zerrenda horretan eskaera bakarra onartuko da bizikidetzaren unitate bakoitzeko. Hain zuzen ere, Udaleko bulegoetan erregistratzen den lehenengo onartuko da.

Onartutako eta baztertutako behin-behineko zerrenda Udaleko iragarki taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko da. Ordutik, bost egun naturaleko epea zabalduko da erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikoa izango da, inolako akordiorik egin gabe.

8. *Behin betiko zerrenda eta baratzeen zerrenda.*

1. Erreklamazioak ebatzi ondoren, onartutako eta baztertutako behin betiko zerrenda argitaratuko da Udaleko iragarki taulan eta webgunean. Behin betiko ebazpenaren aurka, berraztertze errekurtsa edo administrazioarekiko auzi errekurtsa jarri ahal izango da, hala badagokio, Donostiako Administrazio Auzietarako Epaitegian.

9. *Esleitzeko modua.*

Udalak jasotako izen-emate kopuruaren arabera erabakiko du esleitzeko modua.

10. *Esleipendunen behin-behineko zerrenda eta itxaron zerrenda.*

1. Esleipendunen behin-behineko zerrendak eta itxaron zerrenda Udaleko iragarki taulan eta webgunean argitaratuko dira.

Zerrendaren batean agertzen diren pertsonen erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte hiru egun naturaleko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

e) No haber sido sancionado por incumplimiento previsto en el Reglamento para la adjudicación y gestión de las huertas ecológicas de Zestoa.

4. *Modelo de solicitud.*

El modelo de solicitud es el anexo I.

5. *Lugar y plazo para presentar solicitudes.*

Los impresos de solicitud debidamente cumplimentados deberán registrarse en las oficinas del Ayuntamiento, presencial o electrónicamente, en el plazo de diez días naturales, a partir del siguiente a la publicación de esta convocatoria.

Ese plazo podrá ser ampliado por resolución del alcalde de Zestoa.

6. *Documentación a presentar.*

Para comprobar que se cumplen los requisitos establecidos, deberá acompañar la solicitud con los siguientes documentos:

a) Fotocopia del DNI o documento que legalmente le sustituya.

b) Documentos que acreditan el cumplimiento de las condiciones de la 3. base o, en su defecto, declaración jurada (anexo II).

c) Documento que demuestra la situación de desempleo.

El Ayuntamiento comprobará de oficio el tiempo de empadronamiento, la ausencia de infracciones y el estar al corriente de las obligaciones tributarias o de otra índole para con este Ayuntamiento.

El Ayuntamiento podrá requerir al solicitante la documentación complementaria que estime pertinente para comprobar el cumplimiento de las condiciones establecidas.

7. *Lista provisional y reclamaciones.*

El Ayuntamiento de Zestoa, una vez comprobadas las solicitudes presentadas, elaborará la lista provisional de solicitantes que cumplen los requisitos.

En esta lista provisional se aceptará una única solicitud por unidad de convivencia. En concreto, la primera registrada en las oficinas del Ayuntamiento por esa unidad.

La lista provisional de admitidos y excluidos será publicada en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento. Desde entonces, se abrirá un plazo de cinco días naturales para presentar reclamaciones. En caso de que no se presenten reclamaciones, la lista provisional pasará a ser definitiva, sin emitir ningún tipo de acuerdo.

8. *Lista definitiva y lista de huertas.*

1. Una vez resueltas las reclamaciones, se publicará la lista definitiva de admitidos y excluidos en el tablón de anuncios y la página web del Ayuntamiento. Contra la resolución definitiva se podrá interponer recurso de reposición y, si corresponde, contencioso administrativo, en el Juzgado de Contencioso Administrativo de Donostia.

9. *Modo de adjudicación.*

El Ayuntamiento decidirá el modo de adjudicación en función del número de inscripciones recibidas.

10. *Lista provisional de adjudicatarios y lista de espera provisional.*

1. La lista provisional de adjudicatarios y la lista de espera provisional se publicarán en el tablón de anuncios y en la página web del Ayuntamiento.

Podrán reclamar las personas de cualquiera de las dos listas en un plazo de tres días naturales, contados a partir del día siguiente a su publicación.

2. Esleipendunei baratzeen behin-behineko esleipenaren berri emango zaie, eta hiru eguneko epea emango zaie esleipenari uko egiteko. Uko egitea idatziz aurkeztu beharko da Udaleko Bulegoan. Horrelakorik aurkeztu gabe, esleipena onartutzat joko da.

Prozesuaren edozein unean Udalak ezarritako baldintzak betetzen ez direla egiaztatuko balu, ordura arte lortutako eskubideak bertan behera geldituko dira. Hortaz, esleipendunak baldintza orri hauetan eta indarreko arautegian ezarritako baldintzak ez dituela betetzen egiaztatuz gero, pertsona horri edo bizikidetzaren unitate horri zegokion baratzea libre geratuko da eta berriro esleitu da, itxaron zerrendaren ordenari jarraituz.

11. Behin betiko zerrendak, itxaron zerrenda eta esleipen prozesua.

1. Epea igaro eta erreklamaziorik aurkeztu ez bada, edo, hala badagokio, erreklamazioak argitu ondoren, Zestoako Udalak erabakia hartuko du eta behin betiko zerrenda osatu eta baratzeak esleitu ditu.

2. Halaber, behin betiko itxaron zerrenda osatuko dute ezarritako baldintzak bete arren baratzerik esleitu ez zaien eskatzaileak.

Itxaron zerrenda erabiliko da libre dauden baratzeak esleitzeko. Baratze horien lizentzia epea, ordea, mantenduko da. Hau da, agortu gabeko eperako esleitu da baratzea.

Adjudikazio berri hauek alkateak onartu beharko ditu.

3. Lizentzien gehieneko epea igaro ondoren (4 urte, luza-penak barne), Udalak beste deialdi bat egingo du baratzeak esleitzeko, eta oinarri eta baldintza berriak onartu ahal izango ditu.

Aurreko emakida-aldian baratzeak erabili dituzten onuradunek deialdi berrian ere izena emateko aukera izango dute.

12. Behin betiko esleipenaren ondorengo betebeharrak.

– Fidantza eta kanona ordaintzea.

– Baratze ekologikoak esleitzeko eta kudeatzeko arautegian (2013ko maiatzaren 16an argitaratu zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN) ezarritako baldintzak betetzea.

13. Araubide juridikoa.

Baldintza orri hauetan esplizituki aurreikusi gabeko egoeretan, baratze ekologikoak esleitzeko eta kudeatzeko arautegian ezarritakoa errespetatuko da (arautegi hori 2013ko maiatzaren 16an argitaratu zen Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN).

Zestoak, 2021eko apirilaren 30a.—Mikel Arregi Urrutia, alkatea. (2979)

2. Se informará de la lista provisional a los adjudicatarios que tendrán un plazo de tres días para renunciar a la adjudicación. La renuncia deberá presentarse por escrito en las oficinas del Ayuntamiento. Sin la misma se considerará aceptada dicha adjudicación.

Si se comprobaba, en cualquier momento del proceso, que no se cumplen los requisitos establecidos por el Ayuntamiento, quedarán sin efecto todos los derechos adquiridos. Por lo tanto, si se comprueba que el adjudicatario o la unidad de convivencia no cumplen las condiciones establecidas por esta convocatoria y por el reglamento en vigor, la huerta que se les había adjudicado quedará libre y se adjudicará siguiendo el orden de la lista de espera.

11. Lista definitiva de adjudicatarios, lista de espera definitiva y proceso de adjudicación.

1. Si, una vez pasado el plazo, no hubiese reclamaciones, o, en su caso, una vez resueltas las reclamaciones, el Ayuntamiento de Zestoa aprobará la lista definitiva y adjudicará las huertas por medio de una resolución.

2. La lista de espera se creará con aquellos solicitantes que cumpliendo las condiciones establecidas no resultaron adjudicatarios.

La lista de espera se utilizará para adjudicar las huertas que queden libres, manteniendo el plazo de las licencias. Por lo tanto, se volverán a adjudicar por el tiempo restante hasta acabar el plazo de adjudicación.

Estas nuevas adjudicaciones serán aprobadas por el alcalde.

3. Una vez superado el plazo máximo de licencia (4 años, prórrogas incluidas), el Ayuntamiento realizará una nueva convocatoria para la adjudicación de huertas, para lo cual podrá aprobar nuevas bases y condiciones.

Las personas que hubiesen sido adjudicatarias, podrán presentarse a la nueva convocatoria.

12. Obligaciones posteriores de los adjudicatarios.

– Abonar la fianza y el canon.

– Cumplir los requisitos establecidos por el reglamento de adjudicación y gestión de las huertas ecológicas (publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, el 16 de mayo de 2013).

13. Régimen jurídico.

En las situaciones no recogidas explícitamente en esta convocatoria, se respetará lo establecido por el reglamento de adjudicación y gestión de las huertas ecológicas (publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, el 16 de mayo de 2013).

Zestoak, a 30 de abril de 2021.—El alcalde, Mikel Arregi Urrutia. (2979)

**I. ERANSKINA/ ANEXO I:
ZESTOAKO BARATZE PARKEA**

BARATZEA ESKATZEA

SOLICITUD DE HUERTO

ESKATZAILEAREN DATUAK

DATOS DEL/ LA SOLICITANTE:

Izen-abizenak		Nombre y apellidos:	
NAN	DNI:	Jaiotze data:	Fecha de nac:
Telefonoa:		E-maila:	
Helbidea:		Domicilio:	
Zer udalerritan erroldatuta?	¿En que municipio está empadronado/a?	Erroldatze data:	Fecha empadronamiento:
Erabiltzailea bazara, baratze bera erabiltzen jarraitu nahi duzu? ¿En el caso de que seas usuario, quieres seguir usando la misma huerta?			

AURKEZTUTAKO DOKUMENTUAK / DOCUMENTOS PRESENTADOS

<input type="checkbox"/> Langabezia agiria / Certificado desempleado/a
<input type="checkbox"/> NAN kopia / Copia DNI
<input type="checkbox"/> Zinpeko aitortpena / Declaración jurada

Zestoa,
Data eta sinadura / Fecha y firma:

Eskari-orri honetan datu pertsonalak interesatuaren onespenez jasotzen dira, tratamendu automatizatua izango dute eta Zestoako Udaleko Informazio Sistemari sartuko dira. Datu horiek udal kudeaketarako soilik erabiliko dira, eta beste administrazio publikoei edo besteri laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoan) aurreikusitakoa gertatzen denean. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta aurka egiteko eskubidea erabili ahal izango dute Zestoako Udaleko Informazio Bulegoan.

Los Datos Personales contenidos en la presente instancia son recogidos bajo en consentimiento del afectado y serán objeto de tratamiento automatizado e incorporados al Sistema de Información del Ayuntamiento de Zestoa. El uso de dichos datos se restringirá exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo precederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Persona. Los interesados podrán ejercitar los derechos de acceso, cancelación, rectificación y oposición a través de la Oficina de Información del Ayuntamiento de Zestoa.

II. ERANSKINA/ ANEXO II:

ZINPEKO AITORPENA / DECLARACIÓN JURADA

AITORLEAREN DATUAK

DATOS DEL DECLARANTE:

Izen-abizenak		Nombre y apellidos:	
NAN	DNI:	Jaiotze data	Fecha de nac:
Helbidea:			Domicilio:

Adinez nagusia eta ezaguera zentzuduna izanik, zera adierazten dut:

a) Aisialdirako baratze ekologikoan garatuko diren nekazaritza eta laborantza jarduerak egiteko fisikoki gai naiz.

(Adingabeen eskabideek guraso edo tutoreen abala izan beharko dute, eta adin nagusikoak izango du erantzukizuna.)

b) Zestoako Udalarekiko zerga-betebehar eta gainerakoak ordaindu ditut.

c) Ez naiz beste baratze ekologiko bateko erabiltzailea den familia-unitate bateko kidea.

d) Ez gara, ez ni ez nire familia-unitatea beste landa-lur baten jabe, ez dugu beste landa-lur baten gozamen eskubiderik, ez gara maizterrak ere. Beti ere nekazaritza-jarduerarako egokiak badira.

e) Ez dut jaso Zestoako Baratze Ekologikoen esleipen eta kudeaketarako araudia ez betetzeagatik zehapenik.

Eta sinatu egingo dut aitorten hau, bertan adierazi dudan guztia egia dela eta zin eginez aitortu dudala frogatzeko.

Mayor de edad y en posesión de mis facultades, declaro:

a) **Encontrarse capacitado físicamente para la realización de las labores agrícolas y de cultivo a desarrollar en el huerto ecológico de ocio.**

(Las solicitudes de las personas menores de edad deberán venir avaladas por el padre, madre o tutor, siendo la persona adulta la responsable a efectos de éste Reglamento).

b) Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias o de otra índole con el Ayuntamiento de Zestoa.

c) No ser miembro de una unidad familiar usuaria de otro huerto **ecológico**.

d) No tener en propiedad, ni en usufructo o arrendamiento, en cualquier lugar, ni el solicitante ni ningún miembro de la **unidad** familiar terrenos de naturaleza rústica, que sean aptos para actividades agrícolas.

e) No haber sido sancionado por incumplimiento previsto **en el** Reglamento para la adjudicación y gestión de las huertas ecológicas de Zestoa.

Firmo la presente declaración para probar la veracidad de todo lo que he declarado por juramento.

Data eta sinadura

Fecha y firma